

IRAKURKETA KLUBEN JARDUTEKO PROZEDURA 2026ko otsaila

AURKIBIDEA

AZKEN EGUNERAKETA: 2026ko otsaila

SARRERA	1
ZER SORTA MOTA DAUDE KLUBETAN?	1
NOLA EROSI KLUBETARAKO SORTA BERRIAK?	1
NORK KATALOGATZEN DITU SORTAK?	2
NOLA EMAN ALTA SORTEI ABSYSNETEN?.....	2
NON GORDETZEN DIRA FISIKOKI SORTAK?	7
NOLA ESKATU SORTA BATEN MAILEGUA?	7
NOLA BIDALI IGNACIO ALDECOA KULTURA ETXEAN GORDETZEN EZ DIREN SORTAK LIBURUTEGI ESKATZAILERA?	10
NOLA ITZULI SORTA BAT HURA GORDETZEN DUEN LIBURUTEGIRA?.....	11
BA AL DAGO SORTA BAT MAILEGUAN IZATEKO GEHIENENKO EPERIK?.....	12
IRAKURKETA KLUBETAKO PARTAIDE EZ DIREN LIBURUTEGIEK SORTAK ESKA DITZAKETE?	12
ZER EGIN BEHAR DA IRAKURKETA KLUBETAKO PARTAIDE IZATEKO?.....	13
XAHUTU AHAL DIRA SORTAK?	13
NORK EGUNERATZEN DITU DRIVEKO DOKUMENTUAK?	13
SORTEI BURUZKO INFORMAZIOA OPAC-EN ERE BAI.....	14
ARAZOAK ETA GORABEHERAK	15
IRAKURKETA KLUBEN KOMISIOA	16

IRAKURKETA KLUBEN JARDUTEKO PROZEDURA: ohiko galderak

SARRERA

Gure herri eta hirietako hainbat liburutegiren inguruan diren irakurketa klubaren artean batzuk —beste batzuk ez— lankidetzan dihardute Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuarekin eta Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultura Etxearekin koordinatuta, liburu sortak edo loteak erosi eta elkarri uzten.

Honako dokumentu honen helburua da EIPS Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztiei proiektu horri buruzko informazio zuzena eta eguneratua ematea, bai proiektu barruan diren liburutegiei bai kanpoan dauden eta sartu nahi dutenei.

ZER SORTA MOTA DAUDE KLUBETAN

- Liburu baten 20 ale dauzkatena.
- Irakurketa Errazeko liburu osaturikoak, gehienetan 10 ale dauzkatena.

NOLA EROSI KLUBETARAKO SORTA BERRIAK?

- Liburutegi partaide bakoitzak urtero gutxienez sorta bat erosteko konpromisoa bete behar du.
- Salbuespena: 5.000 biztanletik beherako udalerrietan aukera emango zaie liburutegiei urtean behin liburu-sorta bat eskatzeko, urtero erosi beharreko gutxieneko sorta erosi behar izan gabe.
- **Irakurketa Errazeko sortak erosiz gero, liburu beraren 20 ale erosiko dira, ondoren fisikoki (eta AbsysNet-en) bi sorta ezberdinetan banatuko direnak.**
- Irakurketa Errazeko liburu osaturiko sorten erosketak sustatuko dira, gizarte-zeregin garrantzitsua betetzen dutelako, eskaria handia dutelako, eta biltegi-arazo gutxiago ematen dutelako.
- Sorta berri bat erosi aurretik, liburutegi erosleak Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari (casadeculturaignacioaldecoa@gmail.com) eta Liburutegi Zerbitzuari (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus) erosketa proposamenaren berri emango die. Bi zerbitzu horien ardura izango

da begiratzea, batetik, beste inork ez duela sorta bera erosteko asmorik azaldu eta, bestetik, aurrez ez dugula liburu horren sortarik (bikoizketak sahieste aldera).

- Behin sorta erosketaren proposamena onartuta, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak sortari zenbaki bat emango dio, katalogatzeko orduan sorta AbsysNet-en eta Drive-ko *Egutegia* eta *Sorta-zerrenda* dokumentuetan ongi identifikaturik gera dadin.

OHARRA: Irakurketa klubetarako, eLiburutegia plataformaren erabilpena ere bultzatuko da. Liburutegi Zerbitzuari liburu baten aldibereko lizentziak eskatu ahal izango zaizkio pertsona talde batek erabil ditzan, 21 egunetako lizentziak, beste 21 egunetara zabal daitezkeenak (informazio gehiago izateko Liburutegi Zerbitzuarekin harremanetan jarri: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus).

NORK KATALOGATZEN DITU SORTAK?

Bi kasu gerta daitezke:

- Liburutegi erosleak katalogatzeko baimena badu: sorta berak katalogatuko du.
- Liburutegi erosleak katalogatzeko baimenik ez badu: liburua katalogatzeko beharrezko diren datuak Liburutegi Zerbitzuari (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus) bidaliko dizkio (derrigorrezko eremuak jasotzen dituen txantiloia Liburutegi Zerbitzutik bidaliko da).

Sorta eta liburu-ale bakoitzari alta eman ondoren, liburutegi bakoitzak bere sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxera bidaliko du, edo hala erabakiz gero, bere biltegi propioan gorde. Hori egin ondoren, sorta mailegatu ahalko da.

NOLA EMAN ALTA SORTEI ABSYSNETEN?

Sorten alta betiere liburutegi erosleak egingo du, eta horretarako Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak sortari emaniko zenbakia erabiliko du.

1. ABSYSNETen sartu

Hemen: <http://www.katalogoak.euskadi.eus/elsn/inicio.htm>

Liburutegi bakoitzak Irakurketa Kluba Liburutegi Birtualeko erabiltzaile eta pasahitza du. Horiek ez izatekotan, eskatu Liburutegi Zerbitzuari (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus):




Liburutegi Birtualera sartuko da:



2. Jadanik katalogatuta dagoen liburua bilatu

3. Sortari eta sortaren ale bakoitzari alta eman, "Gehitu" botoia sakatuz



Gehitu +		Erreg.

Ale berri bat gehitzean, balio lehenetsiak hauek izango dira: "IK Liburutegi Birtuala" (01001) eta sukurtsala "Irakurketa Kluba" (345):

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001 IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea	0
Sukurtsala	345 Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna	13/05/2022
Kokagunea		Erregistro-zk.	
Ale-mota		Signatura	
Egoera		Signatura osagarria	
Alearen Igo kodea		Liburukiaren identifikatzailea	
Euskarria		Balioa	
Jatorria		Inventario-data	
Ale-egoera	C Erabilgarria	Egoeraren aldaketa	13/05/2022
Iraungipen-eguna		Berregelaldiaren data	
Hautazko zenbakia			
Testua			
Mailegu-mugimendua mezua			

3.1 Sorta izendatzen duen "alea" gehitu.

Honela:

- Kokagunea.** "IKL" (Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala) zabalgarrian aukeratu.
- Ale-mota.** SOR (Sorta-Irakurketa Kluba) aukeratu.
- Jatorria. Erosketa** aukeratuko dugu baldin eta sorta liburutegiaren diruarekin erosi badugu. Liburutegi Zerbitzuak lagundu badu, **Eusko Jaurlaritza** aukeratuko da.
- Testua.** Sortari alta ematen dion liburutegiaren izena jarriko da.
- Erregistro-zk.** Ez da erabiltzen.
- Signatura.** Sorta-motaren arabera ezberdin osatuko da:

a) Irakurketa Errazekoak ez diren sortak:

LOTE + sortaren zenbakia (Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak emanikoa).

Signatura osagarria "IK" letrez, marratxoaz, sorta osatzen duten ale kopuruaz eta "ale" hitzaz (tartean hutsunerik gabe) osatuko da:

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001 IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea	9854254
Sukurtsala	345 Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna	31/12/2020
Kokagunea	IKL Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.	
Ale-mota	SOR Sorta-Irakurketa kluba (M)	Signatura	LOTE 430
Egoera		Signatura osagarria	IK-20ale
Alearen Igo kodea	SPA Gaztelaniaz	Liburukiaren identifikatzailea	
Euskarria	AIN Papera	Balioa	
Jatorria	AER Erosketa	Inventario-data	
Ale-egoera	C Erabilgarria	Egoeraren aldaketa	24/08/2021
Iraungipen-eguna		Berregelaldiaren data	23/08/2021 23:59
Hautazko zenbakia			
Testua	Arrasate		
Mailegu-mugimendua mezua			

b) Irakurketa Errazeko sortak:

IE-LF + sortaren zenbakia-letra (Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak emanikoa).

Signatura osagarria "IE-LF" letrez, marratxoaz, sorta osatzen duten ale-kopuruaz eta "ale" hitzaz (tartean hutsunerik gabe) osatuko da:

Alea	Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001 IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea 8472337
Sukurtsala	345 Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna 05/03/2015
Kokagunea	IKL Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.
Ale-mota	SOR: Sorta-Irakurketa Kluba (M)	Signatura IE-LF 8-A
Egoera		Signatura osagarria IE-LF-10ale
Alearen Igo kodea	BAQ Euskaraz	Liburukiaren identifikatzailea
Euskarria	AIN Papera	Balioa
Jatorria	AER: Erosketa	Inbentario-data
Ale-egoera	C Erabilgarria	Egoeraren aldaketa 05/03/2015
Iraungipen-eguna		Berregealdiaren data
Hautazko zenbakia		
Testua	Erreterria	
Mailegu-mugimendua mezua		

3.2 Sorta osatzen duten ale guztiak banan-banan gehitu

Honela:

-**Kokagunea.** IKL (Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala) zabalgarrian aukeratu.

-**Ale-mota.** DMO (Monografiak-Irakurketa Kluba) aukeratu.

-**Jatorria.** "Erosketa" aukeratu dugu baldin eta sorta liburutegiaren diruarekin erosi badugu. Liburutegi Zerbitzuak lagundu badu, "Eusko Jaurilaritza" aukeratu da.

-**Testua.** Sortari alta ematen dion liburutegiaren izena jarriko da.

-**Erregistro-zk.** Ez da erabiltzen.

-**Signatura.** Sorta-motaren arabera:

a) Irakurketa Errazekoak ez diren sortak:

IK + egilearen abizenaren lehenengo 3 letrak + izenburuaren lehenengo 3 letrak

Guztia letra larriz idatziko da. Adibidez: **IK LUI NIÑ** (Valeria Luiselli-ren *Los niños perdidos* liburua).

Liburukiaren identifikatzailea: ale bakoitzari zenbaki korrelatibo bat gehituko zaio, identifikatu eta besteetatik ezberdintzeko.

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea 9854322
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna 31/12/2020
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.
Ale-mota	DMO	Monografiak-Irakurketa Kluba (M)	Signatura IK LUI NIN
Egoera			Signatura osagarria
Alearen 1go kodea	SPA	Gaztelaniaz	Liburukiaren identifikatzailea 20
Euskarria	AIN	Papera	Balioa
Jatorria	AER	Erosketa	Inbentario-data
Ale-egoera	C	Erabilgarria	Egoeraren aldaketa 31/03/2021
Iraungipen-eguna			Berrogeialdiaren data 30/03/2021 23:59
Hautazko zenbakia			
Testua	Arrasate		
Mailegu-mugimendua mezua			

b) Irakurketa Errazeko sortak:

IEK + egilearen abizenaren lehenengo 3 letra + izenburuaren lehenengo 3 letra

Guztia letra larriz idatziko da. Adibidez: **IEK MOR SAN** (Fernando Morilloren *Santiago bidearen misterioa* liburua).

Liburukiaren identifikatzailea: ale bakoitzari zenbaki korrelatibo bat gehituko zaio, identifikatu eta besteetatik ezberdintzeko.

Alea		Marc oharrak	Beste datu batzuk
Biblioteka	01001	IK Liburutegi Birtuala	Barra-kodea 8473199
Sukurtsala	345	Irakurketa Kluba	Erregistro-eguna 06/03/2015
Kokagunea	IKL	Irakurketa Kluba Liburutegi Birtuala	Erregistro-zk.
Ale-mota	DMO	Monografiak-Irakurketa Kluba (M)	Signatura IEK MOR SAN
Egoera			Signatura osagarria
Alearen 1go kodea	BAQ	Euskaraz	Liburukiaren identifikatzailea 3
Euskarria	AIN	Papera	Balioa
Jatorria	AER	Erosketa	Inbentario-data
Ale-egoera	C	Erabilgarria	Egoeraren aldaketa 06/03/2015
Iraungipen-eguna			Berrogeialdiaren data
Hautazko zenbakia			
Testua	Errenteria		
Mailegu-mugimendua mezua			

3.3 Liburu bakoitzari liburutegiaren zigilua jarri

Liburuaren ataria zigilatzea derrigorrezkoa izango da.

Aurrekoaz gain, liburutegi bakoitzak liburuak bere irizpideen arabera zigilatu ahaliko ditu.

NON GORDETZEN DIRA FISIKOKI SORTAK?

Sorta gehienak Ignacio Aldecoa Kultura Etxean daude, baina batzuk erosi zituen liburutegian gordeta daude. Azken hauen kokapena Google Driveko "Sortak-lotes" Excelean adierazten da, izenburuaren ondoren. Ezer adierazten ez bada, sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean gordea dago. Liburutegi bakoitzak erabakiko du erosten dituen sortak Ignacio Aldecoa Kultura Etxera bidali (mezularitza zerbitzuaren bitartez) edo bere biltegi propioan gordeko dituen.

NOLA ESKATU SORTA BATEN MAILEGUA?

OHARRA: 5.000 biztanletik beherako udalerrietan aukera emango zaie liburutegiei urtean behin liburu-sorta bat eskatzeko, urteroko gutxieneko sorta erosi behar izan gabe.

1. Irakurketa Kluben Google Driven erreserba egin

Egiaztatu "Egutegia... [aurtengo urtea]" Excelean beste liburutegiren batek ez duela sorta Liburutegi eskatzaileak behar duen datetan erreserbatu.

Sorta libre bada, Excel orrian erreserba egin: interesatzen zaizkigun hilabeteetan gure liburutegiaren izena edo udalerrria jarriko dugu; jarraian, hilaren eguna, baldin eta badakigu.

Adibidez, Eibarreko liburutegiak martxoaren 1etik maiatzaren 25era arte sorta bat erreserbatu nahi du; honela adieraziko du:

MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
2022	2022	2022
III	IV	V
1 EIBAR	EIBAR	EIBAR 25

2. "Sortak-lotes" Excelean sartu sorta gordeta non dagoen ikusteko eta zein liburutegitara eskatu jakiteko.

3. Mailegua eskatu:

a) Sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean badago:

Eskaera Liburutegi Birtualaren ABSYSNET bidez egingo da.

Horretarako *ikluba* erabiltzailearekin sartuko gara.



- “Mailegu-mugimendua / Mailegu-eskaera” atalean sartuko gara:

- “+” (Gehitu) aukeratuko dugu eskaera berri bat abiarazteko.
- “Irakurlearen xehetasunak” fitxan, *Irakurlea* eremuan, sorta eskatzen duen liburutegiaren txartelaren zenbakia (liburutegi bakoitzak berea du) edo sorta eskatzen duen erakundearena (Aranbizkarrako Adinekoentzako Zentroa, adibidez) sartuko dugu.
- “Alearen xehetasunak” fitxan, *Barra-kodea* eremuan, sortaren barra kodea sartuko dugu (sorta osatzen duten liburu-aleen gaineko eskaerarik ez da egin behar).

- "Eskaera" fitxan, *Erakusmahaia* eremuan, Liburutegi eskatzailea aukeratu behar dugu (lehenetsita agertzen da).

The screenshot shows a web browser window with the URL www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetcl/X8541/ID005a7f12/NT0?ACC=1111. The page title is 'PETICIÓN DE PRÉSTAMO | AÑADIR'. The form contains the following data:

Biblioteca		Sucursal	
01001 Biblioteca Virtual CL		345 Club de Lectura	

Detalles de la Persona Lectora

Persona Lectora	120028585	BIZAN ARANBIZKARRA, BIZAN ARANBIZKARRA	Nº alternativo	120028585
Biblioteca	A0039 Vitoria-Red de Bibliotecas Municipales	Tipo de persona lectora	DER/INSTITUCION	
Sucursal	033 Arana	Fecha de caducidad		
Art. en petición	2	Pendiente	0.00	Fecha de suspensión
Mensaje: 2 meses de préstamo/ bi hilabeterako mailegua				

Detalles del Ejemplar

Nº de título	769225	Negutegia = Invernario /		
Código barras	8567322	Código alternativo		
Biblioteca	01001 Biblioteca Virtual CL	Tipo ejemplar	DMO Monografías-Club de lectura (P)	
Sucursal	345 Club de Lectura	Signatura	LOTE 300	
Localización	IKL Biblioteca Virtual Club de Lectura	Signatura suplementaria	IK-20ale	

Petición

Fecha de préstamo	29/05/2024 19:22	Última operación	29/05/2024 19:22
Mostrador	1001 Biblioteca Virtual Club de Lectura	Estado petición	R Petición
Sucursal de la devolución			
Nota			

b) Sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxea ez den liburutegi batean gordetzen bada:

Eskaera ohiko ABSYSNETen egin behar da (ez Liburutegi Birtualaren ABSYSNETen), liburutegien arteko mailegu arrunta balitz bezala.

4. Sorta fisikoki gordetzen duen liburutegiari sorta eskatu zaiola adierazteko mezu elektronikoa bidali

Mezu hau BETI bidaltzen zaie, bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari (casadeculturaignacioaldecoa@gmail.com) bai Liburutegi Zerbitzuari (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus).

Honela sortaren mugimendua errazago arakatu ahal da.

5. Sorta liburutegi eskatzaileira iristen denean, osoa eta egoera onean iritsi dela baieztatu behar da.

Edozein gertakari (akatsa kutxaren edukian, direnak baino ale gehiago edo gutxiago iristea, aleren bat hondatuta egotea...) bai Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari, bai Liburutegi Zerbitzuari, bai sortaren liburutegi jabeari lehenbailehen jakinaraziko zaie. Baita aurreko liburutegi eskatzaileari ere, baldin eta kutxa handik zuzenean etorri bada.

OHARRA: Eusko Jaurlaritzaren mezularitza-zerbitzua astearteetan igarotzen da Ignacio Aldecoa Kultura Etxetik, sortak jaso eta itzultzeraz.

NOLA BIDALI IGNACIO ALDECOA KULTURA ETXEAN GORDETZEN EZ DIREN SORTAK LIBURUTEGI ESATZAILERA?

1. Sorta hauek ohiko ABSYSNET (ABSYSNET "arrunta") erabiliaz mailegatzen dira.
2. Sorta gordetzen duen liburutegiak liburutegi eskatzailearen mezu bat jasoko du, bertan eskaera egin izanaren berri ematen diona.
3. Liburutegiak jaso dituen sorten mailegu-eskaerak egiaztatuko ditu. Horretarako "Mailegu-mugimendua == Egin gabeko eskaerak == OK (botoi berdea)":

EGIN GABEKO ESKAERAK		BILATU					
Bilaketa							
Biblioteka	01001 IK Liburutegi Birtuala	Kokagunea					
Sukurtsala	345 Irakurketa Kluba	Ale-mota					
Jatorria	Sarekoa						
Eskaerak							
Egoera	Kok.	Barra-kodea	Titulua	Signatura	Bz.etik.-os.	Mailegu-eguna	Erakusmahala

Eskaera bat egin badigute bertan agertuko zaigu.

Ezer izapidetu aurretik kutxa fisikoki bere lekuan dagoela egiaztatu behar da.

"Mailegu-eskaera" atalean, "Alearen xehetasunak" fitxan, eskatutako sortaren barra-kodea sartu behar da (*Barra-kodea* eremua). Eta OK (botoi berdea) sakatu. Jarraian, "Aldatu" aukeratu == "Egoera" == "Norako bidea" aukeratu == OK (botoi berdea). "Egin gabeko eskaerak" atalean sortaren eskaera hau ez da jadanik agertuko.

Alearen xehetasunak

Dagokion titulu-zk:

Barra-kodea

Biblioteka

Sukurtsala

Kokagunea

Hautazko zenbakia

Ale-mota

Signatura

Signatura osagarria

Eskaera

Mailegu-eguna

Erakusmahai

Itzultzeko sukurtsala

Oharra

Azken eragiketa

Egoera

B	Bilaketa egiten
B	Bilaketa egiten
T	Norako bidea
E	Jasoa
^	M...

4. Liburutegi eskatzailearen helbidea sorta gordetzen duen kutxan adierazi:

Liburutegi guztien helbideak eta harremanetan jartzeko moduak bilatzeko, kontsultatu <https://www.euskadi.eus/euskadiko-liburutegi-publikoen-direktoria/web01-a2libzer/eu/>

5. Kutxa mezularitza zerbitzu bidez bidali.

NOLA ITZULI SORTA BAT HURA GORDETZEN DUEN LIBURUTEGIRA?

- Sorta ABSYSNET birtualean itzuli.
- Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari eta Liburutegi Zerbitzuari posta elektronikoko bidez itzulketaren berri eman behar zaie, beti.
- Sorta Ignacio Aldecoa Kultura Etxean gordetzen ez den kasuetan liburutegi gordailuari ere ohartarazi behar zaio. Kasu honetan itzulketa ohiko ABSYSNET bidez egingo da.
- Edonola ere, sorta fisikoki gordetzen duen liburutegira itzultzerakoan, osoa eta egoera onean bidaltzen dela egiaztatu behar da. Sorta fisikoki bi kutxetan gordetzen den kasuetan, kutxa bakoitzean berari dagozkion aleak soilik bidaltzen direla baieztatuko da.

ITZULKETAK | ITZULKETAK

Biblioteka 01001 IK Liburutegi Birtuala
Sukurtsala 345 Irakurketa Kluba

Itzultzeko eguna 23/05/2022 09:17

Irakurlearen xehetasunak

Irakurle-zk.

Biblioteka Sukurtsala

Irakurle-mota Iraungipen-eguna

Etxean mailegatutako art. Ordaindu gabekoa Gabetze-data

Mezua

Alerearen xehetasunak

Erl.	Irakurle-mota	Ale-mota	Sukurtsala	Bar.K.	Titulua	Maileg.-eg.	Itz.-eg.	Isuna
------	---------------	----------	------------	--------	---------	-------------	----------	-------

Sartu barra-kodea

OHARRA: Bigarren liburutegi batek sorta segidan erreserbatua badu, sorta ez da Ignacio Aldecoa Kultura Etxera itzuliko, eta erreserba egin duen hurrengo liburutegi eskatzaileari zuzenean bidaliko zaio.

Bidalketa BETI jakinaraziko zaie Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari eta Liburutegi Zerbitzuari. Ohiko prozedurari jarraituko zaio, baina sorta fisikoki Ignacio Aldecoa Kultura Etxetik pasatuko ez denez, beharrezkoa izango da lehenengo mailegu eskaeraren tramitazioa ABSYSNETen bukatzea (horretarako, sorta maileguan duen liburutegiak Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari ohartaraziko dio), bigarren mailegu eskaera egin nahi duen liburutegiak ABSYSNETen eskaera egin ahal dezan.

BA AL DAGO SORTA BAT MAILEGUAN IZATEKO GEHIENENKO EPERIK?

Mailegu epea hiru hilabetetik gorakoa ez izatea gomendatzen da, beste liburutegiek sorta berbera eskatzeko aukera izan dezaten.

IRAKURKETA KLUBETAKO PARTAIDE EZ DIREN LIBURUTEGIEK SORTAK ESKA DITZAKETE?

Printzipioz, ez. Liburutegi batek bere jabetzakoa den sorta bat bere gordailuan gordea badu eta mailegatu nahiko balu, egin dezake, mailegu horren ardura bere gain hartuz eta egutegian bere izenean erreserbatuz. Ez dira Ignacio Aldecoa Kultura Etxean gordetako sortak mailegatuko, ohiz kanpoko arrazoiren bategatik Komisioak erabaki ezean.

ZER EGIN BEHAR DA IRAKURKETA KLUBLETAKO PARTAIDE IZATEKO?

1. Interesa duten liburutegiek eskaria Liburutegi Zerbitzuari egin behar diote.
2. Liburutegiak gutxienez sorta berri bat erosi behar du. Ondoren, urtero gutxienez beste sorta berri bat erosi beharko du.
3. Liburutegi Zerbitzuak parte hartu nahi duen liburutegiari ABSYSNET birtualerako erabiltzailea eta pasahitza emango dizkio.
4. Liburutegiak Gmail kontu bat sortu behar du (adibidez: **ermuaik@gmail.com**).
5. Liburutegi Zerbitzuak (Gmail-eko aurreko kontua erabiliaz) liburutegia **Google Drive**ra gonbidatuko du, bertan dagoen sorten inguruko informazio guztia ikus eta erabil dezan: "Egutegia", "Sorten zerrenda", "Erosketa proposamenak".

XAHUTU AHAL DIRA SORTAK?

- Ignacio Aldecoa Kultura Etxean gordetako sortak:
 - a) Komisioak du xahutzeko erabakimena.
 - b) Behin xahutu ondoren, sorta osoak klubetako liburutegi partaideei eskainiko zaizkie.
 - c) Inork interesik ez balu, sorta desegin eta liburu aleok Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztiei eskainiko zaizkie.
- Liburutegi partaideen gordailuetan gordetako sortak:
 - a) Xahutzeko erabakimena sortaren jabearena da.
 - b) Behin xahutu ondoren, sorta osoak klubetako liburutegi partaideei eskainiko zaizkie.
 - c) Inork interesik ez balu, sorta desegin eta liburu aleok sareko liburutegi guztiei eskainiko zaizkie.

NORK EGUNERATZEN DITU DRIVEKO DOKUMENTUAK?


Dokumentuen eguneratzea Liburutegi Zerbitzuaren eta Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen ardura da (Komisioaren laguntzaz). Salbuespena liburutegi bakoitzak Google Driveko egutegian egiten dituen erreserbak dira. Hala ere, liburutegiren batek akats edo hutsuneren bat atzemanaz gero (adibidez, hondatu edo galdu den sorta edo ale bat), lehenbailehen jakinarazi behar die Liburutegi Zerbitzuari eta Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari. Nolanahi ere, liburutegi jasotzaileak egiaztatu behar du sorta egoera onean dagoela, eta hala ez bada, liburutegi bidaltzailearen erantzukizuna izango da; horrez gain, Google Driven zehaztu beharko da (sorten zerrendan) akatsa edo hutsunea zeinek atzeman duen eta noiz (data).

SORTEI BURUZKO INFORMAZIO OPAC-EN ERE BAI

AbsysNet ez da sorten informazioa eskuratzeko modu bakarra, OPACen bidez ere sar baitaiteke.

Horrek aukera ematen du AbsysNetetik kanpo bilaketa azkarrak egiteko eta sortei buruzko informazioa lortzeko. Halaber, irakurleek, irakurketa-klubak dinamizatzeaz arduratzen direnek erabil ditzakete, sortak kudeatu ohi dituztenez gain.

OPACen, "Beste bilaketa batzuk" atalaren bidez, goiko aldean:



Behin "Irakurketa-klubeko loteak" menu zabalgarriaren barruan sartuta, behar den informazioa eskuratzen da pantaila honetan:

Irakurketa-klubeko loteak

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Duis scelerisque placerat turpis quis elementum.

Edozein eremu

Eremu espezifikoak

Izenburua

Egilea

Argitaratzailea

Gaia

Bilduma

Irakurketa erraza

Irakurketa erraza

Denbora-tarte honetan argitaratua:

Noiztik Noiz arte

Bilaketa-terminoak:

- Aukerak:
 - Zerrenda Ikusi 10 Ordena Autoritatea/Izenburua

Aukerak/Kontsultarako aldatzaileak

Hizkuntza

Herrialdea

Formatua

Bereskuratzeko aukerak

Zerrenda ikusi

Ordena

Bilaketa fazetatua

Bilaketen historia

OHARRA: OPACen bidez edozein erabiltzailek (irakurketa klubekin zerikusirik ez duten liburutegi eskatzaileak barne) egiten dituen bilaketetan ez da irakurketa klubaren emaitzarik aterako, eta ondorioz, ez dute horiek eskuratzeko modurik izango. Beraz, irakurketa klubaren sortak irakurketa klubentzat baino ez dira ikusgai eta eskuragai egongo.

ARAZOAK ETA GORABEHERAK

- *Mailegaturiko sorta edo aleren bat galdu bada:*

Erreklamatu ostean berreskuratzen ez bada, liburutegi eskatzailea galdutakoa ordezkatzeko arduratuko da. Argitalpena agortuta balego, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari eta Liburutegi Zerbitzuari galdetu ondoren, antzeko balioa du(t)en liburu alea(k) edo sorta(k) eskuratu beharko d(it)u.

Liburu alea(k) edo sorta(k) ordezkatu arte, liburutegi horrek ez du sortak eskatzen jarraitzerik izango.
- *Sorta egoera txarrean itzuli bada:*

Sorta erabilezin geratu bada aurreko puntuan azaldutakoari jarraituko zaio.
- *Bi liburutegirik data berdinetarako sorta berbera eskatzen badute:*

Google Driveko egutegian erreserba lehenik sartu duen liburutegiak du lehentasuna.
- *Sorta hirugarren batzuei utzi eta epean itzuli ez badute:*

Liburutegi eskatzailea sortaren itzulketaz arduratuko da.

Beste liburutegi batek sorta hurrengo hilabeteetarako erreserbatu badu, liburutegi eskatzaileak sorta maileguan dutenei haren mailegua luzatu ezin dutela ohartaraziko die.
- *Sorta hirugarren batzuei utzi eta itzuli ez badute:*

Dagokien zigorra ezarriko zaie, eta liburutegi eskatzaileak sorta hori erosi beharko du, edo beste antzeko bat, sorta agortuta izanez gero,.
- *Sortaren ABSYSNETeko fitxan, Google Driveko egutegian edo sortaren zerrendetan akatsen bat atzematen bada:*

Liburutegi Zerbitzuari eta Ignacio Aldecoa Kultura Etxeari jakinaraziko zaie, zuzen dezaten.
- *Google Driveren sartu ezin ezean:*

Google Drive Liburutegi Zerbitzuak emaniko Gmail-eko posta-kontu bati lotuta dago. Arazorik izanez gero, jarri harremanetan Liburutegi Zerbitzuarekin.

- *Jarduteko prozeduratik kanpo aritzeagatik prozedura gogorarazi eta ondorioz hartutako erabakiari jaramonik egiten ez dion liburutegiaren kasuan, prozedurari lotu arte ez du sortak eskatzen jarraitzerik izango.*

- *Irakurketa klub*en funtzionamenduari buruzko edozein zalantza, iradokizun edo kexa Liburutegi Zerbitzura bidali ahal da (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus).

OHARRA: Sorten mugimenduekin loturik dauden gorabeherak Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko Gmail posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira. Eskerak egiaztatzeko, itzulketak iragartzeko, eta abar telefonoz deitzea saihestu behar da. Telefonoa arazo zehatz bat gertatzen denean bakarrik erabiliko da.

Harremanetarako helbideak:

liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

casadeculturaignacioaldecoa@gmail.com

IRAKURKETA KLUBEN KOMISIOA

Egun, EIPSeko irakurketa kluben jarduna zuzentzen duen Komisia honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute, kide gehiagori irekita badago ere:

- Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua
- Ignacio Aldecoa Kultura Etxea
- Eibarko liburutegia
- Leioako liburutegia
- Errenteriako Udal Biblioteka

Komisioa urtean behin edo birritan elkartzen da, eta irakurketa kluben inguruko hainbat kontu jorratzen ditu: sortak erosteari eta eratzeari buruzkoak, horiek gordetzea eta xahutzea, gorabeherak edo arazoak nola kudeatu erabakitzea, irakurketa kluben jarduna aztertzea eta hobekuntzak sartzea, prozedura eskuliburua eguneratzea, Komisiaren funtzionamenduaren eta lanen informazioa zabaltzea.